



Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 23koa. Horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle erantsi gisa egiaztatzeko ebaluazio eskaerari buruzko jarduera amaitzen da.

Aurrekariak

1. 2008ko uztailaren 9ko erabakiaren bidez, Unigual Administrazio Kontseiluak (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia) kontratatutako irakasleak eta ikerlariak, unibertsitate pribatuetako doktore-tituludun irakasleak eta irakasle lankideak eta elkartuak kontratatu aurreko txostena ebaluatzeko eta egiaztatzeko deialdiaren berri eman zuen (2008ko irailaren 10eko 172. EHAA). Kexa hau sustatu duen unibertsitateko irakasleak deialdi honetan hartu zuen parte.
2. Deialdia izapidetu bitartean, Unigualeko zuzendariak, 2009ko martxoaren 16ko ebazpen bidez, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) irakasle erantsi gisa egiaztatzeko eskaeraren ezezko ebaluazioaren berri eman zion interesdunari. Erabakiaren arrazoi gisa, Ebaluazio Batzordeak emandako iritzi teknikoaren laburpena azaldu zuen: *"ikerketa atalean ez du gutxienekoa lortzen." Eskatzaileak bere ekoizpen zientifikoa handitu beharko luke eragina duten argitalpenetan."*
3. Dagokion berraztertze errekurtsoa adierazi ondoren, interesdunak zera eskatu zuen: *"en todo caso y para evitar posible indefensión, se me especifique la puntuación exacta de cada uno de los méritos aportados en el ya referido apartado de actividad investigadora y transferencia del conocimiento."* Hala eta guztiz ere, Unigualeko zuzendariak, 2009ko ekainaren 10eko ebazpen ezesle berri batean adierazi zuenez *"Batzordeak emandako iritzi teknikoa adituek gai zehatzean onargarriz jotzen duten emaitza zuzenari buruzko eztabaidaren esparruaren barnean dago. Bereziki, iritzi hori Batzordeko kideak ados jarrita hartu dela kontuan hartuta. Auzitegi Gorenaren aburuz (...), horrek zera adierazten du: 'kalifikazio-organoko kideen gehiengoaren babesa duten iritziei lehentasuna ematea'."*
4. Kontu hau kexa gisa aurkeztuta, erakunde honek eta aurreko jardueren ereduari jarraiki, Unigualeko zuzendaritzari eskatzen dizkio mota honetako prozeduretan interesdunen bermeak lehiatzeko beharri buruzko errekerimenduak, bereziki motibazioari dagozkion bermeak lehiatzekoak.
Gure esku-hartzeari erantzuna emate aldera, Agentziako Zuzendaritzak honako hau adieraztera mugatu zen: *"ebaluazio batzordeak aurkeztutako eskaera birpasatu du eta eskatzaileari emandako puntuazio berretsi du aurkeztutako merituen balorazioaren arabera, EHAA-n argitaratutako 2008ko abuztuaren 11ko 149/2008 dekretuan onartzen diren egiaztatzeko eta ziurtatzeko erabili*





beharreko irizpideak". Ondoren, zera azpimarratzen zuen (Batzordearen arabera):

- "- Agentziak argitaratutako baremoak ezarri direla.*
- Ezarritako baremoen arabera lortutako puntuak ez direla nahikoak eskatutako gutxienekoa lortzeko*
- Batzordeak erreklamazioa merituei emandako puntuazioen motibazioaren kontra doala uste duela eta ez curriculum bakoitzean baremoak nola ezarri diren, horregatik balore hauek argitaratzearen kontra joan beharko lukeela*
- Motibazioaren erreklamazioak ez duela zehazten zein atal edo merituei buruz ari den hobeto erantzuteko*

Oinarriak.

1. Unibertsitateko irakasle honek helburu gisa zuen deialdia onartu zenean (2008ko uztailaren 9ko erabakia), Uniqualeko Administrazio Batzordeak Kontratututako irakasleak, ikerlariak, unibertsitate pribatuetako doktore-tituludun irakasleak eta irakasle lankideak eta elkartuak kontratatu aurreko txostena ebaluatzeko eta egiaztatzeko Protokoloa ere onartu zuen (2008ko irailaren 10eko 172. EHAA).

Protokolo horrek, prozesua orokorrean eta ebaluazio atalari dagokiona zehazki deskribatzen duenez, zehazki honako hau xedatzen du:

"(...) Batzordeen txostenek iritzi teknikoa eman behar adute, abaluazio – irizpide bakoitzean jasotako puntuazioarekin eta iritziaren laburpen arrazoituarekin. Puntuazioa aldekoa ez bada, arrazoitu egin behar da zergatik.

Ebaluazio-eskaerei dagokienez, laburpen horrek eskatzaile bakoitzaren curriculumaren balorazio orokor motibatu petsonalizatua izan behar du, iritzi teknikoa adieraziz eta diagnostikorako eskema bat aplikatuz. Aholkuak ere eman behar ditu, eskatzailearen indarguneak azpimarratuz eta bere etorkizuneko ibilbide profesional hobetzeko ekintzak proposatuz."

Erabaki horien aurretik, ekainaren 29ko 149/2008 Dekretua onartu zen (2008ko abuztuaren 11ko 151. EHAA), Uniqualen ebaluatzeko, egiaztatzeko eta ziurtatzeko erabili beharreko irizpideak zehazten dituena.

Erantsitako irakasleen irakasle eta ikerlari gisako jarduna ebaluatzeko finkatutako irizpideen artean ezarritako baremoak ikerketa-jarduerari eta jakintzaren transferentziari buruzko lehen atal bat biltzen du. Bertan zera biltzen da:





1.- IKERKETA-JARDUERA ETA JAKINTZAREN TRANSFERENTZIA (55 puntura arte)

1.1.– Argitalpenak (40 puntura arte)

- ISBNarekin argitaratutako liburuak, atal baten egilea, testuaren koordinatzailea (edit.) eta testu-itzulpena
- Bere alorreko maila ertaineko/altuko aldizkarietan indexatutako argitalpen zientifikoak
- Argitalpen zientifikoak erredakzio-kontseiluak edo nazioko orraztaileak dituzten aldizkarietan
- Arte Ederretako katalogoa.

1.2.– Proiektuak eta ikerketa-kontratuak /jakintzaren transferentzia (arloanekin erlazionatutakoa eta unibertsitateari lotua, OTRI/DEIKER edo antzeko beste zentro batzuen bitartez)/adituek baloratutako azalpenak edo arkeologiari buruzko hitzaldiak (15 puntura arte)

- Lehiaketa-deialdietan finantzatutako eta aitortutako ebaluazio-agentzia batek ebaluatutako erkidegoko, nazioko edo nazioarteko proiektuetako ikertzaile nagusia
- Lehiaketa-deialdietan finantzatutako eta aitortutako ebaluazio-agentzia batek ebaluatutako erkidegoko, nazioko edo nazioarteko proiektuetako ikertzailea
- Aitortutako ebaluazio-agentziek ebaluatu gabeko proiektuak
- Ikerketa-kontratuetan parte hartzea enpresa edo erakunde publiko edo pribatuekin (urteko 3 kontratu gehienez)
- Ekintza berezietan/Jakintza-sareetan parte hartzea
- Tresna-ekipamendu eta -teknika berritzaileak diseinatzea, prestatzea eta erabiltzea, eta ikerketarako erabilera komuneko softwarea sortzea
- Lizentziatutako patenteak; lizentziatu gabeko patenteak; beste era bateko jabetza intelektuala
- Lan teknikoei edo artistikoei buruzko txostenak, azterketak edo irizpenak (orduak eta/edo kopuru ekonomikoa kontuan hartuta baloratuko da)
- Prestakuntza antolatzea eta lantzea enpresetan edo erakundeetan (20 orduetik gorako jarduerak)
- Transferentzia teknologikorako prozesuak/Diseinu industrialerako prozesuak

1.3.– Kongresuak (5 puntura arte)

- Gonbidatutako txostenak edo osoko hitzaldiak kongresuan: nazioartean, nazioan
- Ahozko komunikazioak edo posterrak kongresuan: nazioartean, nazioan
- Mahai-inguruetan parte hartzea
- Tailerrak

1.4.– Hirugarren Zikloko jarduerak (20 puntura arte)

- Doktorego-tesiak zuzentzea (defendatutako tesiak)
- Irakaskuntza-esperientzia unibertsitatean graduondoko ikerketetan edo doktorego-programetan (unibertsitateetan edo beste erakunde batzuetan)

1.5.– Ikerketako beste merezimendu batzuk (3 puntura arte)

- Kongresuak eta erakusketak antolatzea, zine-jaialdiak zuzentzea...



- *I + G + Bko planen plangintzan, gauzatzean eta/edo diseinuan parte hartzea*
- *Ikerketa- eta teknologia-ekintzen kanpo-ebaluaziorako batzordeetan parte hartzea*
- *Ikerketa-taldeen koordinatzailea*
- *Bestelakoak*

2. 2. aurrekarian aurreratu dugun moduan, ebaluazio batzordeak ezezo ebaluazioa oinarritzeko interesdunak ikerketari buruzko atalean 30 puntuko gutxieneko puntuazioa lortu ez zuela aipatu zuen, eta eskatzaileari proposatu zion eragina duten argitalpenetan ekoizpen zientifikoa handi zezala.

Zehazkiago, horri helarazitako ebaluazioaren laburpenean, ebaluazio batzordeak honako balorazioak zehaztu zituen:

1.- Ikerketa-jarduera eta jakintzaren transferentzia

.....gehi..... amaiera	
(guztira).....55.....	25,1
1.1. - Argitalpenak	40..... 20,7
1.2. - Ikerketa proiektuak eta kontratuak, etab.	15..... 1,3
1.3. - Kongresuak	5..... 1,6
1.4. - Hirugarren zikloko jarduerak	20..... 1,0
1.5. - Ikerketako beste meritu batzuk	3..... 0,5

Aditzera eman dugun moduan, ebazpen honen aurrekarietan ere, kexa honen izapideak bere gain hartzerakoan, erakunde honek Ebaluazio Batzordearen lana hari eska diezazkiokegun motibazio eskaeretara doitzen zela egiaztatu nahi zuen.

3. Gure esku-hartzearen helburua horrela bideratuta, une honetan aipatu beharke gure Uniqua Agentziaren aurrean izapidetu ditugun mota honetako jardueretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batean oinarritu izan garelako beti (2006ko otsailaren 22ko 125/2006 epaia). Epai horrek Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionala homologoak garatu zuen ebaluazio lana zuen hizpide, eta motibazio eza izan zen, hain zuzen, oposiziorako arrazoiak bat.

Epai hori oso adierazgarria da, izan ere, jurisprudentziako doktrinaren bilakaerari buruzko azterlana egiten du ebaluazio agentzia horien erabakien zehaztasun teknikoaren kontrolaren inguruan.

Gauzak horrela, eta lehenengo epaiak motibazioa zehaztasun eta arbitrariorikotasunaren arteko benetako elementu bereizletzat jotzen zutela



baieztatu ondoren, administratzaileei hartutako erabakiaren arrazoiak berri emate aldera -horrek, administrazioaren borondatea osatzen izandako seriotasuna islatzeaz gain, interesdunari jorratzen zen administrazio egintzaren aurka egiteko aukera ematen zion, bere oinarriak kritikatu eta jurisdikzio kontrola erraztuz. Horretarako hain zen garrantzitsua baldintza hori, non ulertu beharra zegoen behar bezala zehaztu gabeko balorazio batean oinarritutako administrazio ebazpen batek baliogabetasuna zehazteko ordenamendu juridikoaren arau-hauste formalean eragina zuela-, epai honek Auzitegi Nagusiko hirugarren salako lehenengo sekzioko 1996ko uztailaren 5eko epaiak eragin zuen aldaketa azpimarratzen du, izan ere, lege intereseko kasazio-errekurtso bat onetsita, legezko doktrina gisa zera ezarri zuen: *"que las decisiones de la Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora están suficientemente motivadas, aunque no manifiesten explícitamente las razones por las que valoran negativamente un periodo o periodos de investigación, cuando hacen suyas las puntuaciones asignadas por los comités Asesores al valorar globalmente el conjunto de las aportaciones en cada uno de los criterios objeto de evaluación"*.

Horrez gain, kalifikazio erakunde teknikoek onartzen zaien *"zuhurtziarakotasun tekniko"* delakoa aipatzekoa da. Horren arabera, gogoan izan behar dute interesdunen agiriak, lanak, gaitasunak eta historiala baloratzean ematen dituzten iritzi teknikoak ezin direla erakunde jurisdikzionalen pronuntziamentu bidez berraztertuta, salbuespenezko egoeratan ez bada, hala nola, dolua, bortxa, arbitrariorotasuna, boterea desbideratzea, bere jarduna erregulatzen duten arauak haustea edo antzeko eragineko beste urratze juridikoren bat.

Beraz, aurrekari horiekin eta balizko aurka-egiteen tartea oso estua dela onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenak zalantzarik gabe baieztatu du erakunde tekniko hauen ebaluazio erabakiek duten ziurtasun usteak ez duela esan nahi men egin ezin zaionik, eta horretarako, arauak iritzi tekniko bat aplikatzerakoan kontuan hartu beharreko faktoretzat hartzen dituen guztien artean balorazio jakin bat emateko arrazoia zehaztu behar dela. Horren harira ohartarazten duenez, meritu jakin bati puntuazio zehatz bat emateko arrazoia ezkutatzea interesduna akats teknikoa dagoela egiaztatzeak aukera eskain diezaioketen mekanismoetara heltzeko oztopo izan daiteke. Gauzak horrela adierazi duenez, akats tekniko bat egoteko aukera da erakunde ebaluatzailearen jarduerari kalifikazioa egiteko ezarritako erakunde berezitasunean eta inpartzialtasunean oinarritutako administrazio jardueraren ziurtasun ustea eskaintzen diona, hala ez balitz ziurtasun huts eta sinplea bailiteke.

Epai honek zera dio amaieran: *"examinando el informe que consta en el expediente administrativo (folios 12 y 13) se advierte en el mismo que no existe manera alguna de discernir por qué el Comité Asesor llega a la puntuación con la que califica la obra examinada. Se limita el mismo a hacer constar que ha examinado el currículum del solicitante, ha atendido a los criterios de valoración recogidos en la OM de 2.12.94 y que, considerando lo anterior,*



entiende que la obra examinada es merecedora de ser calificada con la puntuación de:, y aquí se añade a mano en el impreso el número 2 (folio 13). No es posible que el interesado sepa si sólo algunos o ninguno de sus trabajos han contribuido o no al progreso del conocimiento, ni si las revistas científicas en que los ha publicado carecen de prestigio, ni si ha sido irrelevante su participación en trabajos colectivos. Quiebra de este modo la garantía que supone intentar combatir la valoración mediante la prueba suficiente y adecuada del error. No puede, en consecuencia, admitirse que el informe del Comité Asesor esté motivado, y, en consecuencia, hay ausencia de motivación en el acto evaluador de la CNEAI, pues aquel constituye la motivación in aliunde de éste. Por todo ello, debe declararse que la recurrente que tiene derecho a que se retrotraiga el procedimiento al momento en que se incurrió en el vicio de ausencia de motivación que ha denunciado....."

4. Aurreko gogoetak eta hausnarketak kexa gisa izapidetu dugun kasura bideratzen baditugu, eta ikerketa jarduerari eta jakintzaren transferentziari buruzko irizpide zehatza aintzat hartuta, erakunde honek inolako arazorik gabe onartzen du batzordeak eskainitako laburpenaren xehetasunari esker irizpide teknikoak aplikatzerakoan kontuan hartutako faktoreei eskainitako pisua zehatz daitekeela: ildo horri jarraiki, esan beharra dago ebaluazioaren tarterik handiena argitalpenei buruzko atalari dagokiola, gainontzeko atalek bestelako garrantzirik izan gabe.

Baina, lehen identifikazio horrez gain, interesdunaren curriculumari buruzko motibaziorik ez dagoenez, protokoloak xedatzen duen moduan eta eragina duten argitalpenen ekoizpen zientifikoa handitzeko egindako gomendioa gorabehera, interesdunak ez ditu ezagutzen ebaluazioaren laburpenean agertzen den 20,7ko puntuazioa emateko batzordeak izan dituen arrazoiak.

Horren guztiaren ondorioz eta kexa hau izapidetu bitartean bildutako informazioa berraztertu ondoren, erakunde honek honako ondorioa lortu du.

Ondorioa

Unigual agentziaren helburu izan behar da kontratatutako irakasleak eta ikerlariak, unibertsitate pribatueta doktore-tituludun irakasleak eta irakasle lankideak eta elkartuak kontratatu aurreko txostena ebaluatzeko eta egiaztatzeko deialdietan Ebaluazio Batzordeen lana Ebaluazio eta Egiaztatze Protokoloan xedatutakoaren arabera dela bermatzea, euren txostenak, kontrakoak izanez gero, justifikatuta egon daitezten eta eskatzaile bakoitzaren curriculumaren balorazio orokorra, arrazoitua eta pertsonalizatua izan dezaten, iritzi tekniko adierazita eta diagnostika eta gomendioak biltzen dituen eskema aplikatuta, eskatzailearen indarguneak nabarmentzeko eta etorkizuneko bide profesionalean hobekuntza jardueretan orientatzeko.